



## MURUETAKO UDALA

# BANDOA

### Trafiko mugatua Etxondo eta Goienengotik Parke Geologikoko bidegurutzeraino mugikortasun segurua bermatzeko

Muruetako Udalak Etxondo eta Goienengotik Parke Geologikoko bidegurutzeraino doan bidea noranzko bakarreko jartzea erabaki du mugikortasun segurua bermatzeko eta horrekin auzotarren bizi kalidatea hobetzeko asmotan. Orain, igo ahal izango da baina ez jeitsi. Egoiliarrek eta baimendutakoek bakarrik jeitsi ahal izango dute.

Azkenaldian bide horretan bide segurtasun arazoak egon dira gero eta ibilgailu gehiago igarotzen direlako bertatik, batez ere uda sasoian Parke Geologiko eta Teilerira joateko, ibilgailuen igarotze igoera handi horrek bide segurtasun arazoak sortuz.

Horregatik, Muruetako Udalak mugikortasun segurua eta auzotarren bizi kalidatea hobetzeko helburuarekin, Etxondo eta Goienengotik Parke Geologikoko bidegurutzeraino doan bidea noranzko bakarreko jartzea erabaki du bertako auzotarrekin bertan auzo batzar bat egin ostean.

Lehen esan bezala, orain, bide horretatik igon egin ahal izango da, baina ez jaitsi. salbuespen batekin, egoiliarrak eta baimendutakoak jaitsi ahal izango direlako bertatik.

Larrabe auzotik sartu eta irten egin ahal izango da norazko bietan orain arte bezala, ibilgailuak gurutzatzeko bide seguruagoa baita.

Muruetan, 2020ko abuztuaren 17an.

Julen Karrion Lamikiz

Muruetako Alkatea

